ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948- 890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

**ANA ETXEBERRIA ELIZONDOK, ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIKO ORDEZKO IDAZKARIAK, ZIURTATZEN DU:**

Zaraitzuko Etxeko bilkura-aretoan (Ezkaroze), **2022ko uztailaren 8**ko 17:00etan, Zaraitzuko Batzorde Nagusiak ohiko Osoko Bilkura egin du, Pedro Mascaray Navarro Batzordeburu dela.

Honako batzordekide hauek bertaratu dira:

**ALDAGAINA**:
**ERRARTEA**: Gonzalo Celay.
**ATABEA**: Pedro Mascaray, Elena Ayerra eta Pio Sarries.

Batzordeburuak bilkura hasi, eta honako erabaki hauek hartu dira:

**1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA**

Aurreko bilkuraren akta ikusirik, aho batez onetsi da.

**2. ANA SAGARDOIREN IDAZKIA, KARGUARI UKO EGITEKO. ONESTEA, EGOKIA BADA. BATZORDE, PIRINIOETAKO MAHAI, IRATI BASOA ETA ABARRETARAKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA**

Ekainaren 17an, Ana Sagardoi batzordekidearen idazkia jaso zen. Bertan, gaztelaniaz eta euskaraz, honako hau azaltzen zuen:

Nire iritziz, Zaraitzuko herritarrak ordezkatzen ez dituen batzorde batean parte hartzen ari naiz; ez nator bat funtzionamenduarekin, ez egiten ari den kudeaketarekin, ezta hartzen diren erabaki

**ANA ETXEBERRIA ELIZONDO, SECRETARIA SUPLENTE DE LA JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR, CERTIFICO:**

En la Villa de Ezcároz y en la Sala de Sesiones de la Junta General del Valle de Salazar, siendo las diecisiete horas del día **ocho de julio de 2022**, se reúne la expresada Junta, al objeto de celebrar, previa convocatoria cursada al efecto en forma reglamentaria, Sesión Ordinaria bajo la Presidencia de D. Pedro Mascaray y con la asistencia de las y los siguientes Vocales:

**POR ALDAGAÑA**:
**POR ERRARTEA**: Sr Celay.
**POR ATABEA**: Srs/a.: Pedro Mascaray, Elena Ayerra y Pío Sarries.

Abierta la sesión por el Sr Presidente, se adoptaron los siguientes acuerdos:

**1.- APROBACIÓN ACTAS ANTERIORES**

Se aprueban por unanimidad las actas de sesiones anteriores.

**2.- ESCRITO DE RENUNCIA AL CARGO ANA SAGARDOI. ACEPTACIÓN SI PROCEDE. NOMBRAMIENTOS COMISIONES, MESA DEL PIRINEO, IRATI BASOA ETC.**

En fecha 17 de junio se recibe escrito de la Vocal Ana Sagardoi en el que, en castellano y euskera expone:

“Estoy participando en una junta que desde mi punto de vista, no representa a la población del Valle de Salazar, no comparto el funcionamiento y la gestión que se realiza y no estoy de acuerdo con la mayoría de decisiones que se toman. Pienso que mi aportación en este momento es nula. Así que

gehienekin ere. Une honetan ez dut ekarpenik egiteko modurik ikusten. Beraz, nire dimisioa aurkeztuko dut.

Sagardoi bilkurara etorri da agurtzera, eta idatziz adierazitakoa berretsi du, aktan jasotzeko eskatuz. Ondoren, arratsaldeko zazpiak eta hamarrean bilkuratik joan da.

Batzordeburuak erantzutea proposatu du, baina, azkenean, dimisioa onestea erabaki da, emandako zerbitzuak eskertuta eta arrazoiak baloratu gabe.

Ana Sagardoiren ordezkoak izendatu dira zenbait batzordetan:

Euskara batzordean Pio Sarries izanen da ordezkaria.

Pirinioetako mahaian bete gabe geratu da, funtzionamendua ezagutzen ez delako.

Irati Basoan Elena Ayerra izanen da ordezkaria.

**3. 2022KO ABELTZAINTZAKO AZPIEGITUREN PROIEKTUA ALDATZEA. TAPLAKO PUTZUA**

Aho batez erabaki da ura putzutik askara eramateko hodiak jartzeko modua aldatzea. Hasierako proiektuan aurreikusita zegoen hoditeria guztia lurperatzea, guztira 3.200 metro. Hala ere, Batzordeko langileek egokiagotzat jo dute hodiaren zati bat lurrazalean uztea, makinak pasatzen direnean hainbat zuhaitz bota behar ez izateko eta makinak finkatu behar diren lekuetan lurra ez mugitzeko. Aldaketak aurrekontua gutxitzen du; diru hori Koixtako askak hobetzeko erabiliko da (lurra berdintzea eta zola berria jartzea).

Aldaketarekin aurrekontuaren 2. Kapitulua 43.067,59 eurotik 43.712,59

presento mi dimisión”.

La Sra Sagardoi acude a la sesión a despedirse y vuelve a manifestar lo que ya había expresado por escrito, que pide que conste en acta. Después, abandona la sesión siendo las diecisiete horas y diez minutos. Se plantea por parte del Sr Presidente, proceder a contestar, pero finalmente se acuerda aceptar la dimisión “sin entrar a valorar los motivos” y agradecerle los servicios prestados. Se procede a sustituir a Ana Sagardoi en las comisiones, mesa del Pirineo Irati Basoa ete.

En la comisión de euskera, ocupa su lugar como representante, D. Pío Sarries.

En mesa del Pirineo, no se conoce bien su funcionamiento, por lo que queda pendiente.

En Irati Basoa ocupa su lugar la Sra Ayerra.

**3.- MODIFICACIÓN DEL PROYECTO DE SUBVENCIÓN DE INFRAESTRUCTURAS GANADERAS 2022. BALSA DE TAPLA**

Se acuerda por unanimidad modificar la forma de colocación de tubería y aguas desde la balsa hasta los abrevaderos. En proyecto original estaba previsto el enterramiento completo de la tubería en 3.200m. Sin embargo, el personal de la Junta ha considerado más adecuado dejar parte de la tubería en superficie y parte enterrarla, para evitar el derribo de varios árboles cuando pase la maquinaria, y evitar el movimiento de tierras donde fuera necesario asentar dichas máquinas. El cambio supone una ligera reducción presupuestaria, que se destinará a la mejora de los abrevaderos de Koixta (nivelación y dotación de nueva solera). Los cambios presupuestarios afectan al capítulo 2 pasando de 43.067,59 € iniciales a 43.712,59 con la modificación.

eurora igaroko da.

**4. LANGILEEN ARRISKU PSIKOSOZIALEN EBALUAZIOA ETA TXOSTENAK JASOTAKO EKINTZAK ONESTEA. ARETE ACTIVA ETA MEDIACION NAVARRA ENPRESEN AURREKONTUAK ONESTEA, EGOKIAK BADIRA**

Arrisku psikosozialen ebaluazio-txostenak prebentzio-jarduera planifikatzeko neurriak jaso zituen. Ekintzetako bat da kanpoko profesional batekin bitartekaritza-prozesu bat hastea, eta horretarako aurrekontua eskatu zaio `Mediación Navarra´ enpresari. Beste neurri bat da organigrama bat egitea, Batzordeko langile bakoitzaren eginkizun eta erantzukizunekin, eta horretarako `Arieté Activa´ enpresak aurrekontua aurkeztu du.

Batzordeburuak adierazi du prest dagoela txostenak proposatzen duen guztia egiteko, arduradunaren kontratazioa izan ezik, aurrekonturik ez dagoelako; datorren urteko aurrekonturako utzi da.

Bi proposamenak aztertu ondoren, aho batez erabaki da `Arieté Activa´ kontratatzea, eta gehiengoz, Celayren abstentzioarekin, `Mediación Navarra´ kontratatzea.

**4.- VALORACIÓN RIESGOS PSICOSOCIALES DEL PERSONAL TABAJADOR Y APROBACIÓN DE ACCIONES DERIVADAS DEL INFORME: APROBACIÓN SI PROCEDE PRESUPUESTOS ARETE ACTIVA Y MEDIACION NAVARRA.**

Del informe de evaluación de riesgos psicosociales se concluyeron unas medidas para planificar la actividad preventiva. Dentro de las cinco acciones que se proponen, una era iniciar un proceso de mediación con una persona profesional y externa y para ello se ha solicitado presupuesto a MEDIACIÓN NAVARRA. Otra medida era realizar un organigrama con las funciones y responsabilidades de cada persona trabajadora de la Junta. Para ello presenta presupuesto la empresa ARIETÉ ACTIVA.

El Sr Presidente manifiesta estar dispuesto a hacer todo lo que el informe propone que mejore la situación, salvo la contratación de encargado ya que al no haber disposición presupuestaria, se deja para el presupuesto del año que viene.

Estudiadas ambas propuestas se acuerda por unanimidad la contratación de Arieté Activa y por mayoría, con la abstención del Sr Celay, la contratación de Mediación Navarra.

**5. LANPOSTUAK BEHIN BETIKO BETETZEKO PROZEDURAREN HASIERA ONARTZEA. DEIALDIA EGITEA**

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/21 Legean ezarritakoaren arabera, Lan

**5.- APROBACIÓN INICIO PROCEDIMIENTO DE PROVISIÓN DEFINITIVA DE PUESTOS DE TRABAJO. ELABORACIÓN DE LA CONVOCATORIA.**

De conformidad con lo establecido en la Ley 20/21 de 28 de diciembre de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, las convocatorias de los

ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Eskaintza Publikoan sartutako lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuen deialdiak abenduaren 31 baino lehen egin beharko dira. Lanpostu hauek dira: idazkaria, Iratiko basozaingoa, larrezaina, euskara teknikaria eta baso-langile bat. Bitarteko kontratuak eta aldizkako kontratu mugagabeak dituzten postuak dira (finkoak lan-arloko araubide juridikoaren arabera, baina mugagabeak administrazio-araubidearen arabera).

Batzordeak abendura arte zenbait deialdi onetsi beharko dituenez, horiek prestatzen hasiko da.

Aho batez erabaki da `Arieté Activa´ren laguntzaz deialdiak prestatzen hastea.

**6. BATZORDEAK ETA UDALEK AZTERTZEKO DITUZTEN GAIAK. EKINTZAK BURUTZEA.**

Ikusita ibarreko udal guztiek ez dutela Batzordeak proposatutako gaietan lan egiteko interesik, aho batez honakoak onetsi dira:

- Deskontu-bonuak: Iratialdearekin harremanetan jartzea eta proposatzea 7.500 euroko aurrekontuarekin egin dezaten (kudeatzea eta burutzea); elkartean ez daudenei sartzeko aukera ematea.

- Irache kontsumitzaileen elkartea: Interesa duten udalekin erdibana ordaintzea. Kontsultak herri bakoitzak prestatzen dituen lokaletan eginen dira.

- Irati Irratia: antena ezartzeko proiektua bertan behera utzi da.

- Biosfera-erreserbaren adierazpena: Batzordeak aurrera jarraituko du.

**7. IRATIKO BASOZAINEK ETA LARREZAINAK IBARREKO**

procesos selectivos para la cobertura de plazas incluidas en la Oferta Pública de Empleo, deberá producirse antes del día 31 de diciembre. Las plazas de la Junta para cuya provisión no se han tenido en cuenta los principios de igualdad, mérito, capacidad y publicidad son: secretaria, guarderío de Irati, guarda de pastos, técnico de euskera y una plaza de forestal. Se trata de plazas con contratos de interinidad e indefinidos discontinuos (fijos según el ordenamiento jurídico laboral pero indefinidos según el ordenamiento administrativo).

Visto que de aquí a diciembre, la Junta deberá aprobar varias Convocatorias para la provisión de puestos de trabajo, se pretende comenzar a trabajar en la redacción de las mismas.

Se aprueba por unanimidad, comenzar a trabajar en las diferentes Convocatorias que hay que elaborar y aprobar para diciembre, en colaboración con Arieté Activa.

**6.- TEMAS PENDIENTES DE JUNTA-AYUNTAMIENTOS. EJECUCIÓN DE ACCIONES.**

Visto que no todos los ayuntamientos del valle tienen interés en trabajar en los temas propuestos por la Junta, se aprueba por unanimidad:

- Sobre los bonos descuento: ponernos en contacto con Iratialdea, con el fin de que realicen la propuesta con 7.500 € para todo (gestión y ejecución) y dar la posibilidad de que entren quienes no estén en la asociación.

- Sobre consumidores Irache, hacerlo con los ayuntamientos que quieran y pagarlo a medias. Las consultas se harán en los locales que ponga cada pueblo.

-El proyecto de la implantación de antena para escuchar Irati Irratia se abandona.

- La declaración de la reserva de la

**ETXEETAN BANATUTAKO IDATZIARI ERANTZUTEA, EGOKIA BADA**

Iratiko basozainek, besteak beste, Ibarreko etxeetako postontzietan banatutako idazkiaz eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da ez erantzutea. Halaber, Batzordeak aho batez erabaki du Batzordeburuak langile guztiekin banakako bilerak egitea, egoera hobetzeko. Batzordeburuak adierazi du hala eginen duela, haiek nahi dutenean.

**8. ORDEZKARI SINDIKALARI BIGARREN OHARTARAZPENA EGITEA, EGOKIA BADA. ADRIÁN IRIARTEREN LAN-KONTRATUAREN KOPIAREN ESKAERA**

Batzordeburuak ekainaren 29an Batzordearen bulegoetan gertatutakoaren berri eman du, berak neurri batean entzun eta gainerako informazioa saileko langileei galdetuta jaso zuena. Batzordea jakinaren gainean geratu da, eta erabaki du Silvia Iriarteri, bigarren ohartarazpen gisa, ondokoak adieraztea:

1. Batzordeak ez du onartuko bere langileei mehatxurik edo larderiarik egitea.

2. Ordezkari sindikala izateak ez dio eskubiderik ematen ezein lankideri jazartzeko, mehatxu egiteko eta tratu txarrak emateko.

3. Gogorarazten zaio, ordezkari sindikala denez, Batzordeko langile guztiak ordezkatzen dituela, eta bere eskubideak besteenak hasten diren unean amaitzen direla.

4. Gogorarazten zaio ordezkaritza-jarduera guztiak fede onez eta leialtasunez

biosfera sigue adelante por parte de la Junta.

**7.- CONTESTACIÓN SI PROCEDE, ESCRITO DEL PERSONAL TRABAJADOR DEL GUARDERIO Y GUARDA DE PASTOS, REPARTIDO POR LAS CASAS DEL VALLE.**

Visto el escrito buzoneado por las casas del valle y firmado, entre otros, por el guarderio de Irati, debatido el asunto, se acuerda por unanimidad no contestar al escrito. Asimismo la Junta acuerda por unanimidad insistir en que el Presidente realice las reuniones que sean necesarias para mejorar la situación pero con cada trabajador/a, uno a uno. El Presidente manifiesta que se reunirá uno a uno cuando ellos y ellas quieran.

**8.- SEGUNDA ADVERTENCIA SI PROCEDE A LA DELEGADA SINDICAL. SOLICITUD COPIA DE CONTRATO ADRIÁN IRIARTE**

El Sr Presidente da cuenta de lo sucedido en las oficinas de la Junta el día 29 de junio, que él mismo escuchó en parte y que al preguntar por lo sucedido en el departamento se le informa de lo acontecido. Ante estos hechos, la Junta se da por enterada y acuerda aprobar las siguientes manifestaciones que serán enviadas a Dª Silvia Iriarte como segunda advertencia:

1º Que esta Junta no va a admitir amenaza o intimidación alguna inferida por su parte a personal de la misma.

2º Que su condición de Delegada Sindical, no le atribuye derecho alguno para acosar, amenazar y maltratar de obra o de palabra a ningún compañero de trabajo.

3º Se le recuerda que, por su condición de Delegada sindical, representa a todos los trabajadores de la Junta y que sus derechos

ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

egin behar dituela eta guztien ongizatea bilatu behar duela. Horrek gure onespen osoa du; ez, ordea, ohituraren, legearen edo adostasuna, bake soziala edo aldeen eta lankideen arteko liskarra haustera bideratutako jarduketak. Ez du ahaztu behar haren eskubideak ez direla mugagabeak.

Adrián Iriarteren lan-kontratuaren kopiaren eskaerari dagokionez, adierazi zaio behin baino gehiagotan eman zaizkiola, azken aldia 2021eko urrian, Batzordearen artxiboetan jasota dagoen bezala.

Langileen betebeharra da Batzordearekin kontratu bidez lotzen duen dokumentazioa gordetzea, eta Batzordea behartuta dago kopia ematera honako kasuotan: irakur ezintasuna, suntsipena, galera edo lapurreta; horrelakoak ez dira aipatu bere eskabidean.

Batzordeak berriz esan dio Batzordeburuari banan-banan hitz egiteko hala eskatzen duten langileekin. Batzordeburuak berriz adierazi du hala eginen duela, haiek nahi dutenean.

**9. ENKANTEAN ATERATAKO EGUR-SAILAK BEHIN BETIKO ESLEITZEA**

Aho batez erabaki da 2021eko Planeko egur-sailak behin betiko esleitzea:

1. lotea, Bizkarrandia: 59.501 €, `Maderas Irabarne´ enpresari.

2. lotea, Ler Erreka: 57.386 €, `Oihan Zaleari´.

3. lotea, Zubiberria: 66.050 €, `Maderas Tellechea del Salazar´ enpresari.

**10. SILVIA IRIARTEK NAFARROAKO ADMINISTRAZIO**

acaban donde empiezan los de los demás.

4º Se le recuerda que toda actuación representativa ejercitada por su parte, debe serlo de buena fe y lealtad, buscando el bien general, lo que tiene todo nuestro respeto, no así las actuaciones contrarias a la costumbre, la ley o aquellas encaminadas a romper el consenso, paz social o la búsqueda del enfrentamiento entre las partes y con compañeros. Sus derechos no son infinitos y, por el contrario, los mismos tienen límite, cuestión que no debe olvidar.

En relación a la instancia en solicitud de petición de copia del contrato laboral de Adrián Iriarte, le indicamos que tal y como consta en los archivos de esta Junta, el mismo le ha sido entregado en varias ocasiones, la última en el mes de octubre de 2021.

Es obligación de los trabajadores, el guardar la documentación que le vincula contractualmente con la Junta, estando ésta obligada únicamente a su reposición en copia, por deterioro que cause ilegibilidad, destrucción, pérdida o robo, cuestiones que no alega en su instancia

Asimismo, la Junta vuelve a insistir al Presidente que hable uno por uno con cada trabajador que lo solicite. El Presidente, vuelve a manifestar que cuando ellos y ellas quieran.

**9.- ADJUDICACIÓN DEFINITIVA LOTES SUBASTA**

Se acuerda por unanimidad la adjudicación definitiva de los lotes del Plan 2021:

Lote 1 Bizkarrandia: 59.501 € a Maderas Irabarne

Lote 2 Ler Erreka 57.386 € a Ohian Zalea

Lote 3 Zubiberria 66.050 € a Maderas Tellechea del Salazar.

**10.- INTERPOSICIÓN DE RECURSO**

**AUZITEGIAN JARRITAKO ERREKUTSOAK, NAO-N ARGITARATUTAKO 2022KO PLANTILLA ORGANIKOAREN ETA LEP-AREN AURKA**

Silvia Iriartek jarritako 22-01139 zenbakiko errekurtsoa jaso da. Batzordeak aho batez erabaki du:

**Lehenengoa**.- Espedientea Nafarroako Administrazio Auzitegira bidaltzeko erabakiaren ebazpena jakinaraztea errekurtso-jartzailearen uzien onespenak eragin diezaiekeen pertsonei, hau da, Batzordeko langileei; dei egitea 10 egun balioduneko epean auzitegi horretan ager daitezen uzi horien aurka egiteko.

**Bigarrena**.- Auzitegiari administrazio-espedientearen kopia bidaltzea, epatzeko egindako jakinarazpenak eta bertan dauden agirien aurkibidea erantsiz.

**Hirugarrena**.- Auzitegira txostena edo alegazioak bidaltzea, espedienteari erantsi eta Osoko Bilkuran aho batez onetsi direnak.

**11. ERREMENDIAKO OBREN LIZITAZIOA HUTSIK**

Jakinarazi da Erremendiako bigarren faseko obrak esleitzeko lizitazioa hutsik geratu dela, Nafarroako Kontratazioaren Atarian lizitazio-iragarkia argitaratu ondoren, ez delako eskaintzarik aurkeztu. Obra-proiektuaren ingeniaria, Batzordeburua eta proiektu estrategikoen zuzendaritza gaia aztertzen ari dira. Aldaketaren bat egin ondoren, lizitazio berri bat ateratzen saiatuko da.

**AL TAN CONTRA ACUERDOS PUBLICADOS EN BON REFERENTES A PLANTILLA ORGANICA 2022 Y OPE POR SILVIA IRIARTE.**

Trasladado recurso número 22-01139, interpuesto por Dª Silvia Iriarte, la Junta del Valle de Salazar acuerda por unanimidad:

**Primero.-** Notificar la resolución por la que se acordó remitir el expediente al Tribunal Administrativo de Navarra, a las personas cuyos intereses pudieran verse afectados por la estimación de las pretensiones de la recurrente, el personal trabajador de la Junta, emplazándoles para que en el plazo de 10 días hábiles puedan comparecer ante dicho Tribunal, para oponerse a dichas pretensiones.

**Segundo.-** Remitir al Tribunal copia del expediente administrativo, incorporando las notificaciones para emplazamiento efectuadas, acompañado de un índice de los documentos que contenga.

**Tercero.-** Remitir la Tribunal escrito de informe o alegaciones que se ha incorporado al expediente de la sesión y es aprobado por unanimidad.

**11.- LICITACIÓN OBRAS REMENDIA: DESIERTA**

Se informa que la licitación para la adjudicación de las obras de la segunda fase de Remendía ha quedado desierta. Tras la publicación del anuncio de licitación en el Portal de Contratación de Navarra no se ha presentado ninguna oferta. Se está estudiando la causa entre el ingeniero autor del proyecto de las obras, el Presidente de la Junta y la Dirección de proyectos estratégicos. Se intentará sacar una nueva licitación con alguna variante que permita la licitación y ejecución del contrato.

## 12. JASOTAKO IDAZKIAK:

- `Laiak zona media´rena, LGTBfobiarik gabeko eremu izendatzeko eskatuz. Aho batez erabaki da konpromiso hauek hartzea:

* Eraldaketaren parte aktiboa izatea eta Batzordearen eremua LGTBIQ fobiarik gabeko eremu eta LGTBIQrentzako askatasun-eremu izendatzea.

* Adierazpena ibarreko udaletara bidaltzea, hari atxikitzeko.

* Adierazpena Nafarroako Gobernuari, Espainiako Gobernuari eta Europar Batasunari jakinaraztea.

- Zaraitzu-Nabaskoze Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearena, Batzordeak aurrekontuan jarritako zenbatekoaren % 50a emateko eskatuz, likidezia-falta saihesteko.

Aho batez erabaki da 2022ko apirilaren 8ko Osoko Bilkuran hartutako erabakira jotzea, posta elektronikoz Mankomunitateario bidali zitzaiona. Laburrean, hau zioen: Udalek defizitaren erdia hartu behar dute beren gain, eta Mankomunitateak ez ditu diru-sarrera finkotzat hartu behar Zerbitzurako 25.000 euroak eta 0-3 urterako 6.000 euroak.

- Otsagabiko udalarena, zahar-etxerako sorgailu baterako finantzaketa eskatuz.

Idazki berean Batzordeari zahar-etxearen patronatuan parte hartzeko eskaera egin zaio; horri buruz Osoko Bilkuran ezetz erabaki zen.

Sorgailua finantzatzeari dagokionez (gutxi gorabehera 30.000 €), gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da Batzordeak eta udalak erdibana ordaintzea,

## 12.- ESCRITOS RECIBIDOS:

- De Laiak zona media, solicitud declaración zona libre de LGTBfobia. Se acuerda por unanimidad, que como Junta del Valle de Salazar nos comprometemos a:

* Ser parte activa de la transformación y declarar los territorios de la Junta como zona libre de LGTBIQ- fobia y zona de libertad para las personas LGTBIQ.

* Dar traslado a todos los ayuntamientos del valle de la presente declaración para que puedan adherirse a ella

* Notificar la presente Declaración al Gobierno de Navarra, Gobierno de España y Union Europea.

- De la Mancomunidad de Servicios Sociales Salazar y Navascués” solicitando se les transfiera el 50% de la cantidad presupuestada por la Junta para evitar una situación de falta de liquidez.

Se acuerda por unanimidad remitirnos al acuerdo adoptado en sesión de fecha 8 de abril de 2022, enviado mediante correo electrónico, en el que se comunica a la Mancomunidad, que el déficit de la misma sea asumido por mitad junto a las Ayuntamientos y que los 25.000 € para el Servicio y los 6.000 para el 0-3 años no deberían considerarse por la Mancomunidad como un ingreso fijo.

- Del ayuntamiento de Ochagavia/Otsagabia solicitando financiación para un generador para la Residencia de ancianos.

Sobre la petición en el mismo escrito, de que la Junta participe en el patronado que dirige la Residencia ya se decidió en sesión que no.

Sobre la financiación del generador cuyo coste se estima en unos 30.000 €, debatido el asunto, se acuerda por unanimidad que la Junta costee la compra del generador

betiere soilik zahar-etxerako erabiliko dela bermatzen bada eta Otsagabiko udalak mantenua bere gain hartzen badu.

Batzordearen 2022ko ekitaldiko aurrekontuan horretarako aurrekontu-sailik ez dagoenez, 2023ko aurrekontuetan sartzea aztertuko da, udalak egingo duen ekarpenean oinarrituta, hau da, zenbateko bera.

- Zaraitzu-Erronkaribar ADSG elkartearena. Horren bidez, galdetu du noiz indargabetu den 2021eko ekainaren 4ko erabakia, zeinaren bidez abeltzainei eskatzen baitzitzaien, ohiko dokumentazioaz gain, behi-aziendari IBRren aurkako txertoa jarri izanari buruz ADSGk emandako ziurtagiria aurkezteko.

Aho batez erabaki da ADSGri jakinaraztea hartutako akordioa indarrean dagoela, ez dela baliogabetu. Batzordeak sentitzen du sortutakoa arazoa, baina haren ustez konponduta dago. Azkenik, egindako lana eskertu nahi izan du.

Idazkariak adierazi du ez duela erabakia ulertzen; horregatik, erabaki horren balizko ondorio juridikoetatik inhibitu da.

- Larrezainaren txostena. Batzordea jakinaren gainean geratu da.

- Otsagabiko ikastetxeko Guraso elkartearena, eskolan siesta jarduera egiteko finantzaketa eskatuz. Jarduera hau haur-hezkuntzako haurrei eskaini nahi zaie ikasturte osoan, urritik maiatzera, astelehenetik ostegunera. Otsagabiko eskolan ez dira ratioak betetzen jantokiko enpresak zerbitzua ordaintzeko, eta irakasleek ez dute bideragarritzat jotzen haiek horretaz arduratzea, baliabide pertsonalik ez dagoelako. Beraz, kontratazio

por mitad junto al Ayuntamiento, siempre que se garantice que su uso sea exclusivamente para la Residencia de Ancianos y sea el Ayuntamiento de Ochagavia/Otsagabia quien se haga cargo del mantenimiento en su totalidad. Debido a que en el presupuesto de la Junta del ejercicio 2022, no existe partida presupuestaria al efecto, la Junta, en los presupuestos de 2023, debatirá la inclusión de una partida para ello, en base a lo que vaya a aportar el Ayuntamiento, el mismo importe, financiándose así la compra por mitad.

- De la Agrupación ADSG de Salazar Roncal solicitando que la Junta del Valle de Salazar, explique en qué momento se ha derogado el acuerdo de Junta de fecha 4 de junio de 2021 en el que se exigía que los ganaderos, además de presentar la documentación habitual, presenten en la Junta certificado emitido por la ADSG de haber vacunado frente al IBR al ganado bovino. Se acuerda por unanimidad informar a la ADSG, que el acuerdo adoptado está vigente, que no se ha revocado y que lamentamos profundamente el problema generado que entendemos que ya está solventado, agradeciendo el trabajo realizado.

La secretaria manifiesta no entender el acuerdo adoptado, por lo que se inhibe de los efectos jurídicos que este acuerdo pueda producir.

- Informe del guarda de pastos. La Junta se da por enterada.

- De la APYMA del colegio de Otsagabia Solicitando financiación para la implantación de la actividad de la siesta en la Escuela infantil. Se pretende ofrecer la actividad a lo largo de todo el curso y ofertarla a los niños y niñas de toda la etapa de educación infantil. Se ofrecería de octubre a mayo de lunes a jueves. En la escuela de Otsagabia no se cumplen los ratios para que la

bat egin beharko litzateke, kostua 5.047,80 eurokoa izanen litzateke.

Aurkeztutako txosten zehatza aztertu ondoren, Batzordeak aho batez erabaki du gastuaren erdia ordaintzea eta gainerako kostua udalek ordaintzea: udal guztiek, haurrak dituzten udalek edo Otsagabiako udalak, haiek erabaki bezala. Halaber, aho batez erabaki da erabakia Guraso elkarteari jakinaraztea eta jardueraren finantzaketari buruz ematen dituzten hurrengo urratsen berri emateko eskatzea.

**13. GALDERAK ETA ESKAERAK**

Batzordeburuak Iratin izandako hainbat gorabeheraren berri eman du:

- Izei bat moztean apurtu zen askaldegiko hesia laster konponduko dute Batzordeko baso langileek.

- 25etik hurbil dagoen zubi baten eta besteren baten egoera txarraren berri eman diote.

Iratiko basozainei eskatuko zaie eguneroko partean Iratin gaizki dauden azpiegituren berri emateko, eta informazioa ematen jarraitzeko horiek konponduta egon arte, arroparekin egiten zuten bezala.

Idazkariak jakinarazi du egurgile batek Erremendian dagoen Jaurrietako udalaren alanbrea apurtu duela. Udalak egoeraren berri du, eta alanbrea jartzearen kostua egurgileak jarritako fidantzatik deskontatu egiten du, baina ez du inor aurkitu lan hori egiteko. Alanbrea apurtzearen ondorioz, Jaurrietako Miqueleiz abeltzainak 8 behi eraman behar izan ditu Erremendiatik etxera; proposatu du Batzordeko langileek lan hori egitea, orain itxiturak berrikusten ari baitira.

empresa de comedor pague el servicio. El profesorado de la escuela no ve viable cuidar de esta actividad porque no hay recursos personales. Por lo tanto, habría que realizar una contratación, que, para cuatro días de la semana tendría un importe de 5.047,80 €.

Visto el detallado informe presentado al efecto, la Junta acuerda por unanimidad, costear la mitad del importe necesario para ejecutar la actividad y que el resto del coste lo asuman los ayuntamientos, bien todos ellos, los que tengan niños o el ayuntamiento de Ochagavia/Otsagabia, como ellos consideren. Asimismo, se acuerda por unanimidad, notificar el presente acuerdo a la APYMA, solicitándoles, nos vayan informando de los siguientes pasos que dan al respecto de la financiación de la actividad.

**13.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Toma la palabra el Sr Presidente informando de varias incidencias en Irati: el vallado del merendero que se rompió al talar un abeto, va a ser repuesto en breve por los forestales de la Junta, le han informado del estado defectuoso de un puente cerca de la 25, y, de algún puente más que no es el derruido.

Por ello se comunicará al Guarderío turístico de Irati que, en el parte diario que realicen de las incidencias, informen a la Junta de todas las infraestructuras que estén mal en Irati. Y que sigan informando mientras éstas no estén arregladas o repuestas. Que lo repitan en los partes igual que lo hacían con la ropa.

La secretaria informa que en Remendía hay un alambre del Ayuntamiento de Jaurrieta que un maderista, sacando madera ha roto. Que el ayuntamiento está informado y descontará de la fianza impuesta por el maderista, el coste de reposición del alambre pero que no encuentra quien lo haga.

ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Batzordearen ustez, Jaurrietako Udalak konpondu behar du egoera.

Batzordeburuak jakinarazi du Mikel Reparazekin hitz egin zela abereak larratzeari buruz; bilera bat egitea proposatu zen, baina suteengatik bertan behera utzi behar izan zen. Reparazek adierazi zuen abereak ez larratzeak mendiko larreetarako dirulaguntzan eragina izan lezakeela, hain zuzen larrezainaren finantzaketari dagokionean. Hori dela eta, Batzordeburuak larratzeko eskatu zuen, gaia argitu bitartean; Taplako abeltzainak, aldiz, ez dira hori betetzen ari, eta baliteke gutxi batzuek arauak ez betetzeak guztientzako ondorioak ekartzea, baldin eta dirulaguntza txikiagotzeak aprobetxamenduaren ordainketan eragina badu. Hori dena adierazi du aktan jasotzeko eta etorkizunean gaiari buruzko erabakiak hartzeko.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 21:20an Batzordeburuak bilkura amaitu du, eta akta hau egin da, neronek, idazkariak, egiaztatua

Ezkarozen, 2022ko uztailaren 20an

Esto ha afectado al Sr Miqueleiz de Jaurrieta que propone que lo hagan los trabajadores de la Junta que están repasando los cierres ya que tiene 8 vacas en casa cuando deberían estar en Remendía. La Junta entiende que es el Ayuntamiento de Jaurrieta quien tiene que resolver la situación.

El Sr Presidente informa que en la sesión donde se trató de los redileos, posteriormente se habló con Mikel Reparaz para aclarar la situación y se propuso hacer una reunión. Esta no pudo celebrarse por los incendios. En cualquier caso y visto que el Sr Reparaz manifestó que la no ejecución de los redileos por parte de los ganaderos podría repercutir en la subvención de pastizales montanos que financia el coste del guarda de pastos, el Sr presidente manifestó a la comisión que redilearan mientras no se aclarase el asunto. Los ganaderos de Tapla no están redileando por lo que informa a la Junta y manifiesta que conste, para la adopción de acuerdos a futuro sobre este tema. Es posible que el incumplimiento de unos pocos implique a todos, si se repercute la minoración de la subvención en el pago del aprovechamiento.

Y, no habiendo más asuntos a tratar, el Sr Presidente, da por finalizada la sesión siendo las veintiuna horas y veinte minutos. Se extiende la presente acta que yo, secretaria, certifico, en Ezcároz a veinte de julio de 2022.

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR · EZCÁROZ · ZARAITZUKO IBARRAREN BATZORDEA

ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com